

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko urtarrilaren 3a

*

Arkitektura tradizionala, laster museoetara

■ Zazpi urtetako lana, milaka argazki eta marrazki, kilometro askotako bidaia Nafarroan barna, ezin konta ahala asteburu... dena jatorrizko arkitektura tradizionala desagertzen ari dela egiaztatzeko. Hori da Xabier Morras pintore eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak joan den udazkenean Leioan aurkeztu zuen tesia. Eraberritu aurreko eta berritu ondoko emaitzen arteko konparazioak eginez, portzentaiak ateraz, itxuraz harrigarria den ondorioa dario lanari: ustez eraberritze izan diren etxe askotako aldaketek, praktikan, mendeetan zehar findutako estiloaren desagerpena ekarri dute ia.

Laster, museoetara. ■



Iturmendiko etxe bateko mentsula erraldoi bat, jatorrizko teilategal batetik kendua, zaborretara joateko prest.
XABIER MORRAS

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Olentzerok, urtero bezala, bere bixita egin digu. Aurten ez zait hagitz aberats etorri, opariz aberats alegia, baina kantu eta alaitasun giroa ekarri digu. Lesakan goizean goiz abiatzen da gazte-txoen bizkar gainean eta karrika bazter guztietatik barrena ibiltzeko ohitura du, baita baserriz baserri ere. Eguerdiko hamabietan Olentzero guztiak plazan biltzen dira, lehiaketa baitago. Orain dela urte batzuk arte, sari-keta horretan neskek ez zuten sekulan ere parte hartu. Karrikaz karrika edonor ibil zitekeen, Olentzero bizkar gainean hartuz eta gabon kantak abes-

tuz, baina lehiaketan mutilak bakarrik. Hau horrela, neskentzako bertze sari-keta bat asmatu zuten, jaiotzarena alegia; beraz mutilak Olentzero egin eta berarekin ateratzen ziren bitartean neskek jaiotza egin behar izaten zuten.

Aurten, bertze urte batzuetan bezala, lehiaketan neskek ere parte hartu dute, eta ez hori bakarrik; bizkarrean zuten Olentzeroren ondoan, buruko painolua, gona, gonazpikoa, mantala, zapinak, abarkak... soinean zituen emakumea ere jarri dute.

Abenduaren 24a joan zaigu jadanik,

baita bertze urte bat ere. 97ak zer ekarriko ote digun pentsatzen ari naiz; aitzinekoa baino hobea izango dela espero dut, batzuen ustez behinik behin hori ez da batere zaila izan.

Ez dakizue zenbat kosta zaidan orria betetzea egundoko resaka honekin. Seguruenik ez da nire idatzirik burutsuena izanen, urtezaharra ongi agurtu bainuen, baina horrek erran nahi du urte berriari buruko min nazkagarri honekin erran behar diodala 'iepa'. Dena dela, urte berri on guztioi! X

Egundoko bestondoa

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Lizarrak: Flitter taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak hiru, gaueko 22.00etan, herriko gaztetxean. Lizarrako taldearen hirugarren diskoaren aurkezpena izanen da. Sarrea 300 pezetan izanen da salgai.

Corella: Virgen del Villar orfeoia eta Corellako Rondallak Eguberri kontzertua eskainiko dute igandean, hilak bost, eguerdiko 12.00etan, San Miguel elizan.

Gares: Los Suaves taldeak kontzertua eskainiko du bihar, hilak lau, gaueko 22.00etatik aitzina. Gares aretoan. Sarrera aurretik erosiz gero 1.200 pezeta (48 libera) ordaindu beharko dira. Txarteldegietan, berriz, tiketak 1.500 pezetan (60 libera) izanen dira salgai. Halaber, areto berean, GBH, Manolo Kabezabolo eta Animales Muertos ariko dira igandean, hilak bost, gaueko 22.00etatik aurrera.

Iruñea: Bielorrusiako Orkestra Nazionalak Urteberriko kontzertua eskainiko du heldu den astelehenean, hilak sei, arratsaldeko 20.00etan, Gaiarre antzokian.

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Joxe Lacalleren argazkiak herriko Kultur Etxean ikusgai izanen dira hilaren seira arte. Aretoa gaur eta bihar 19.00etatik 21.00etara izanen da zabalik. Igandean, berriz, 12.30etatik 14.00etara izanen da argazkiak ikusteko aukera.

Iruñea: Txirotasunaren inguruko *Pobres de nosotros* argazki erakusketa ikusgai izanen da Iruñeko Planetariumean hilaren 17ra arte.

ANTZERKIA

Iruñea: Mamarro antzerki taldeak *Betiko ipuin zoragarriak* antzez-lana taularatuko du bihar, hilak lau, arratsaldeko 17.00etan, Jus La Rocha kultur aretoan.

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolako *Huele a gato* obra taularatuko dute bihar, hilak lau, eskolako aretoan, arratsaldeko 18.30etan. Emanaldiaren gibeletik txokolatete jatea izanen da. Sarrerak 500 pezetan (20 libera) izanen dira salgai.

BESTELAKOAK

Gares: Zinema emanaldia euskaraz izanen da gaur, hilak hiru, herriko eskolan, arratsaldeko 16.00etan. Horren gibeletik merienda izanen da. Zehazteke dago pelikularen izena.

Zangoza: *Erregeen misterioa* auto sakramentala ikusgai izanen da astelehenean, hilak sei, goizeko 09.00etan.

Iruñea: Splash zentroak urpekaritza ikastaroak antolatzen ditu. Informazio gehiago lortzeko deitu 17 22 38 telefonora.

Kazetaritzaren porrota

Alberto Barandiaran

Erabaki duena gora-behera, *Indurain afera* deitu izan denak —soluzioak eskuartean ez dituztenean *afera* hitza erabiltzeko joera dute gaur egun kazetariek— kazetaritzaren porrota erakutsi du neurri handi batean. Lau hilabete txintik esan gabe egon ondoren, behin eta berriro bere isiltasuna aldarrikatuta, inor ez omen da konturatu idatzi diren orri guztiek lanbide honek sekula egin behar ez lukeen akatsa potoltzeko besterik ez dutela balio izan: zurrumurruen erresuma eraikitzeko, alegia.

Lau hilabete, lau!, egon gara zoroak bezala txirindulariaren atzetik, bere keinuak, esanak aztertzen, baita bere aurpegiari ere begira, zerbait argituko zigun datu hori aurkituko genuelakoan. Izan dira ausartagoak, orduko eta oraingo detaile funsgabeak erabili izan dituztenak ondorioztatzeko hau eta hura. Ez da begirune minimorik ere eduki bere etorkizuna erabakitzen ari den pertsonarekin, eta batzuek ordainduko dute, erabaki behar zuenaren partez erabaki zutelako goizegi.

Jende asko dabil Indurainen atzetik, eta

interes handia du zer egingo duen jakiteak —horrenbeste puztu dugu berez kirol afera besterik ez den gaia—, baina erroan akats oso larria dagoela iruditzen zait: kazetariek dena jakin behar duten ustea. Ez dira falta haserre gaizki ezkutatuak ere, txirindulariak ez zuelako ezer esaten —alegia, kazetarietaz ez zuelako ezer esaten—.

Sortu dira horrela oso erabiliak izaten diren esapideak —«famiako iturriak», «txirindularia ondo ezagutzen dutenak», «berarengan eragin handia dutenak», «iruditzen zaigu», «ematen du», eta, are, «ausartuko gara esatera» jartzeko partez, beldur ikaragarria dagoelako lanbide honetan «ez dakigu» esateko.

Zer atera daiteke garbi honetatik? Bada, umiltasun handiagoa behar dugula, azal ikusgarri batek ez duela balio gezur txiki batek baino gehiago, eta, baita ere, Indurain ez dela horren inportantea. Hurrengo urtean jubilatuko edo lanean jarraituko duen txirindulari baten erabakia besterik ez dela izan. Baina, jakina, asko bizi dira horretatik. Baita kazetari asko ere.



asteko pertsonaiak



Ainhoa Arteta
Sopranoa

■ Operaren Lagunen Gaiarre Elkarteak antolatuta, kontzertua eskaini zuen atzo Iruñeko Gaiarre antzokian Ainhoa Arteta soprano tolosarrak, gaueko hamar eta erdietatik aurrera. Artetaren ondoan, Alejandro Zabala piano jolea izan zen atzoko kontzertuan. Scarlatti, Rossini, Turina, Montsalvatge eta Sorozabalen obrak eskaini zituen Ainhoa Artetak. Urte berriko lehen egunetan Iruñean egon bada ere, badu beste proiekturik Tolosako sopranoak datozen hilabeteetarako eta baita datorren urterako ere, New Yorken, Amsterdamen eta Washingtonen abesteko asmoa baitu, besteak beste. Japonia ere bisitatuko du ziurrenik.



Miguel Indurain
Txirindularia

■ Azken hilabeteotan sortutako zalantzak atzo eguerdiko ordu batean argitu zituen Miguel Indurain txirindulari atarrabiarrak: txirindularitza uztea erabaki du. Indurainek agiri laburra irakurri zuen Iruñeko hotel batean komunikabideen aurrean. Erran zuenez, zaila izan da berarentzat erabaki hau hartzea, batez ere Espainiako Itzulia utzi behar izan eta gero, ez baitzuen horrela agur erran nahi. Baina 12 urteko karrera luze eta oparoa orain amaitzea da, bere ustez, erabakirik onena. Indurainek, txirindularitza utziko zuela erran ondoren, komunikabideei, Banesto taldeari eta zale guztiei eskaini dioten arreta eskertu zien.

ahaztu gabe!



ERREGE MAGOEN KABALGATA

Iruñea: Urtero bezala, urtarri-laren 5arekin batera, ekialdetik Iruñera hurbilduko dira hiru Errege Magoak, Meltxor, Gaspar eta Baltasar, haur nafar guztien artean euren opariak banatzeko. Iruñeko kaleetatik ohiko ibilbidea egin aurretik, Misericordiaren Etxera joanen dira hiru Errege Magoak bertako kaperan haur jaio berria adoratzera. Ondoren, atsedean hartzera joanen dira, arratsaldeko zazpietan ahalik eta freskoen egoteko. Ordu horretan, Misericordiaren Etxetik bertatik abiatuko da Errege Magoen kabalgata. Denerata hamasei karroza inguru aterako dira Iruñeko kaleetara. Foruen plazatik eta Yanguas eta Miranda, Oliveto Kontea eta San Ignazio kaleetatik igaroko dira eta Gaztelu plazan buelta eman ondoren Carlos III.a kaletik zenezplazarantz joanen dira. Bertan, Javier Chourraut Iruñeko alkateak ongi etorria emanen die. Errege Magoek ere hartuko dute hitza Iruñeko neska-mutilen aurrean. Dantza eta beste hainbat ekitaldiren artean bukatuko da kabalगतako besta handia.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Izaba-Otsagabia

Aste Txuria abiatzeko prest

5.000 ikaslek hartuko dute parte asteartean hasiko den eski kanpaina berrian

Azken urteetan bezala aurten ere Aste Txuria izeneko kanpaina parte hartzeko aukera izanen dute Nafarroako hainbat ikastetxetako gazteek, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Kanpaina datorren asteartean hasi eta apirila bitartean izanen da. Erronkari eta Zaraitzuko pistetan iraupen eskia egiteko aukera izanen dute neska-mutilek, talde bakoitzak Izaba eta Otsagabian emanen dituen bost egunetan zehar.

Erredakzioa / Iruñea

URTERO bezala, Nafarroako ikastetxe ezberdinetako neska-mutilek hainbat egun elur artean emateko aukera izanen dute urte berri honetan ere Erronkarin eta Zaraitzun, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Aste Txuria deitutako ekimen honek hamahirugarren aldia du aurtengoa. Datorren asteartean hasiko da eta apirilean amaitu. Elur arteko kirolak hobeki ezagutzeko aukera izanen dute bertan parte hartuko duten gaztetxoek.

5.000 ikasle inguruk hartuko dute parte aurtengo Aste Txurian. Lehen Hezkuntzako seigarren ikasturteko eta Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren ikasturteko neska-mutillak izanen dira guztiak. Taldeka hartuko dute parte eta talde bakoitzak bost egun emanen ditu Erronkari eta Zaraitzuko pistetan iraupen eskia egiten. Aurreko urteetako esperientziak erakusten duenez, gaztetxoaren artean arrakasta handia du eluretara



5.000 ikasle inguruk hartuko du parte Izaba eta Otsagabiako eski kanpaina berrian.

ARTXIBOKOA

joateko aukera honek, eta ikasleek gogoz hartzen dute parte.

Ikastetxe ezberdinetako neska-mutilek euren irakasleekin hartuko dute parte Aste Txurian. Izaban eta Otsagabian emanen dituzte ikastaroak irauten dituen bost egunak, herri hauetako hotel, kanpin, pensio eta landa etxeetan. Goizez, iraupeneko eskia egingo dute. Zertxobait dakitenek trebatzeko aukera izanen dute, eta ez dakitenek, berriz, ikasteko aukera. Arratsaldetan ere izanen dute zer eginik gazte nafar hauek, hainbat ekitaldi prestatu baitituzte antolatzaileek.

Esate baterako, Erronkari eta Otsagabiako Natura Interpretatzeko Zentroak eta Julian Gaiarre Museoa bisitatuko dituzte, herri kirolak egiteko aukera izanen dute eta talde partehartzaile bakoitzak eta bertan, dantza egiteko aukera izan ezezik, sari ezberdinak banatuko dituzte gazteen artean.

Aipatzekoa da, era berean, eskiatzeko aukerarik ez bada beste hainbat jardura antolatu dituztela antolatzaileek neska-mutilek zeregirik izan dezaten: Natura Interpretatzeko Zentroekin zerikusirik duten lan praktikoa,

txangoak, eskulan tailerrak, jokoak eta bestelakoak egin ahal izanen dituzte gaztetxoek, Erronkarin eta Zaraitzun betiere.

Kanpaina honen prezioa 23.000 pezetakoa izanen da laguneko, baina Nafarroako Gobernuak bakoitzarentzat 8.000 pezetako dirulaguntza emanen duenez, 15.000 pezeta ordaindu beharko du azkenik partehartzaile bakoitzak. Diru horren truke, eskien alokairua, klaseak, eski pistetara joateko garraioa, bazkaria eta etxea izanen dituzte neska-mutilek. X

Leitza

Erregeen etorrera dela eta, kalejira zaratatsua herrian

■ Larunbat gauerdian izanen da, zintzarriekin

Erredakzioa / Iruñea

OLENTZEROREN bisita izan genuen joan den astean, eta honetan, igande gauean zehazki, Errege Magoak ailegatuko dira opariak banatzera. Hori dela eta, Iruñean ezezik, Nafarroako herri askotan ere kabalgata egiten dute igande arratsaldetan, neska-mutilek hurbiletik ikus dituzten.

Dena dela, ez da Kabalgata igande gauaren inguruan antolatzen den ekitaldi bakarra. Leitza, adibidez, herriko Aurrera Elkartek antolatuta, gauerdian bilduko dira herriko

gazte guztiak, Leitza kaleetan barrera ibilbidea egiteko. Kalejira ez da nolanahikoa izanen, ordea, izpiritu gaiztoak uxatzea baita gazteon helburua; horretarako, zintzarri, kulunka eta besterekin ahal den soinua gehiena aterako dute. Izpiritu gaiztoak uxatu ezezik, Errege Magoen etorrera ere iragartzen du Leitza kalejira bitxi honek.

Eta ibilbidea bukatuta, Aurrera Elkartearen egoitzan baratzuri zopa eta gazta dastatu ahal izanen dute zintzarri soinuaren parte hartuko duten guztiak, urteroko ohitura honi jarraituz. X

Baztan

Alkate berria dute jada bailarako herri guztiek

■ Elizondon Santi Aldako Aleman izendatu zuten

Erredakzioa / Iruñea

BAZTANGO hamabost herrietan alkateak aukeratzeko batzarreak egin zituzten abenduaren 22an, baina Elizondo, Ziga eta Almandozen ez zen hautagairik aurkeztu. Hori dela eta, Eguberri egunean bigarren batzarrea egin zuten. Honetan, euren alkateak onartu zituzten Ziga eta Almandozko herritarrek, hautagai bana aurkeztu baitzen: Zigan Celestino Elizalde, eta Almandozen Severino Landa.

Bi herri hauetan, dena den, batzarrea egin behar izan zuten berriro ere Urteberri egunean,

bailarako Batzorde Nagusiak ez baitzuen izendapena onartu, arautegiaren arabera batzarrea urtarrilaren lehenengo egunean egin behar delako. Arautegia beteta, alkate berria dute Zigan eta Almandozen.

Elizondon ere, fruiturik eman ez zuten bi bozketaren ondoren, azkenik Urteberri eguneko batzarreako hautagaia aurkeztu zen, Santi Aldako Aleman, alegia. Ana Mari Marinek utzitako lekua hartuko du alkate berriak. Izan ere, Baztango margolariak iaz kargua hartu zuten ere erran zuen urte baterako bakarrik hartuko zuela. X

Iruñea

Andreak hainbat ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteetarako

■ Parte hartu nahi duenak zabalik du izena emateko epea

Erredakzioa / Iruñea

ANDREA taldeak antolatuta, hainbat ikastaro hasiko dira urtarrilarekin batera Iruñean, gehienak emakumei zuzendutakoak. Eskaintza oso zabala da, eta parte hartu nahi dutenek zabalik dute izen emateko epea. Andrea taldearen bulegora (13 33 10-13 35 11) deitu besterik ez da egin behar, edo bertatik pasatu.

Autoestimazio tailerra izanen da eskaintza horren barruan egin ahal izanen den ikastarotako bat. 32 ordu iraunen du eta hainbat psikologo izanen da irakasle. Jendaurrean hitz egiten ikasteko tailerra ere egonen da emakumeentzat, urtarrilean.

Antzerki teknikak, yoga, ingelesa edo komunikazioa lantzeko tailerrak ere izanen dira. Hauek guztiak urtarrila eta ekaina bitartean egingen dira. Urtarriletik ekainera bitartean, halaber, ehaziri lanak (bolillo) egiten ikasteko ikastaroa izanen da. Tailer hau, gainera, gizon eta emakumeentzat egonen da zabalik. Baita sukaldaritza naturala eta sormenezko makilajea lantzeko ikastaroak ere. Lehenengoa hamabi larunbatetan egingen da, eta bigarrenak, berriz, 30 orduko iraupena izanen du. X

Lizarra

Udalaren laguntza jasoko dute gobernuz kanpoko lau erakundek

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRAKO UDALAK zazpi milioi pezetako dirulaguntza onartu du garapenerako kooperazioa bultzatuko duten sei proiektuentzat. Denetara hamahiru aurkeztu ziren. Onartutako dirulaguntza, Udalaren 1.060 milioi pezetako aurrekontuko 0,7a da.

Medicus Mundik milioi erdiko laguntza jasoko du Ekuadorren osasun proiektu bat abian jartzeko. Mugarik Gabek milioi bat pezeta jasoko du Nikaraguan osasunarako hezkuntza plana garatu ahal izateko. SODEPAZek, berriz, Kubako Las Tunas herriko diabetikoak lagutzeko proiektua garatuko du lortutako milioi eta erdi pezetekin, baita saharar herriaren aldeko beste proiektu bat ere Tindufeko kanpamenduetan (Aljeria). Comite 500 Años taldeak El Salvadorren garatuko du bere proiektua, giza eskubideen alde. X

Arkitektura tradizionala
galbidean

Etxe beltzak, etxe txuriak

Jatorrizko arkitektura tradizionalaren heriotza-agiria idatzi du Xabier Morrás pintoreak

Nafarroako Diputazioak hamazortzi urtez—1965-1982— antolatu zuen herriak eta hiri-inguruak edertzeko lehiaketan saritutako etxeak oinarritzat hartuta, jatorrizko arkitektura tradizionalaren azterketa egin du Xabier Morrás pintore eta irakasleak. Zazpi urte xahutu du lan horretan, eta ondorio hau atera: joan den mendearen bukaera arte ia aldaketarik gabe iritsi zen arkitektura horretatik % 12-18 baino ez dela gelditzen. Lana heriotza-agiria da ia.

Alberto Barandiaran / Iruñea

DATUAK izugarriak dira: Nafarroako herrietako etxe gehienek galdu dute jatorrizko zolua, ia desagertu dira egurrezko balkoiak eta aitzinaldeko pinturak, egurrezko ateen kopurua jaitsi da % 25ra, ia karrerape guztiak aldatu edo desagertu dira, material industrialak nagusitu dira arrunt, ez dago jada egurrezko teilak dituen teilaturik, eta bakarra harlausak dituena... Hauek eta beste ondorio batzuk egiaztatatu ditu, datuekin, Xabier Morrás lan honetan. Emaiza are harrigarriagoa da kontuan hartuz herrietako arkitekturaz, oro har, gure herrialdean dugun iritzia, Euskal Herrian hobekien kontserbatutzat jo izan delako askotan. «Oro har», dio Morrás, «joan den mendera arte nahiko ongi mantendu zen arkitektura tradizional honetatik % 12-18 baino ez da gelditzen, eta joera da desagertzen hau are azkarragoa izango dela hurrengo urteetan».


Lan itzela da pintore eta irakasle honek egin duena. Zazpi urtetan zehar Nafarroa ia osoa zeharkatu du, 10.000 argazki atera eta milaka marrazki egin ditu, eta, hala ere, badaki parte bat besterik ez duela ikertu. Saiatu da, hala ere, esanguratsuen aurkitzen, estrapolazioa egiteko balio zezakeen hura topatzen, eta uste du lortu duela. «Oso dokumentu zehatza da metodologikoki, zorrotasun handikoa, baina badago pasio handia ere bertan sartua, maitasun handiz egin dudalako. Azken finean, herri arkitekturarena ez zik, herri kulturaren heriotza-agiria da hemen idatzi dena».

Poz-emaile baino askoz gehiago ezten etengabekoa izan den lan hau egiteko ideia duela hamar bat urte sortu zitzaion Xabier Morrás, berak ezagututako 50eko eta 60ko Nafarroa desagertzen ari zela konturatu zenean. Ordura arte ia aldaketarik gabe iraun zuen gizartea—lanbideak, tradizioak, etxeak— abia




Elizondoko etxe eder honen orubean egun dagoen beste etxe hau eraiki zen.

XABIER MORRÁS



Zirauciko etxe honetako gisako atea gero eta gutxiago dira Nafarroan. Ondoa Iribasko erdi-puntuko arkuko ate bat leiho bihurtuta.

XABIER MORRÁS



Elizondoko karrerape honen moduko gutxi gelditzen dira jada. Eskubian, beste karrerape eder bat erabat itxita.

XABIER MORRÁS

Xabier Morrás:

«Jendearekin hizketan, konturatu nintzen toki askotan etxe beltzak esaten zietela berritu gabe zeudenei, eta oso metaforiko eta interesgarria iruditu zitzaidan»

«Badago halako obsesioa etxea betikoa izan dadin, eta ez zaitez gauzei beren amaiera izaten; heriotza naturalaren, zimurraren, arrailaren duintasuna ez da onartzen»

izugarrian ari zen aldatzen, eta, jendez erabat hustu ez ziren tokietan, arkitektura, itxura, bisia, goitik behera mudatzen hasia zen. Era askotakoak ziren suntsipenak: erreforma txikiak, betiko etxeen ondoan etxe berriak eraikitzea, inguru industrial baten ondoan egoteagatik erabat aldatzen ziren herriak, edo, besterik gabe, despopulazioa, erabateko hondamendia. Garai hartakoak dira *Expolio* saileko bere koadroak.

Xabier Morrás Nafarroako herri askotan barna eginiko bere bidaietan ikasi zuen gehiago horren atzetik zegoen arrazoez. «Jendearekin hizketan, konturatu nintzen toki askotan etxe beltzak esaten zietela berritu gabe zeuden haiei, eta oso metaforikoa eta interesgarria iruditu zitzaidan».

Lagunekin komentatzen oharatu zen jendeak ez zuela, orokorrean, irudipen bera, eta gehienek onetsi egiten zituztela herri

Arkitektura tradizionala galbidean



Nafarroako Diputazioak antolatutako 1978ko lehiaketan saritu zuten Donamariako etxe honi eginiko aldaketa. Aldaketarekin desagertu dira jatorrizko atea, egurrezko balkoia, ate eta leiho berriak zabaldu dira eta etxe osoa pintatu egin da.

XABIER MORRAS

Lanaren oinarria hau izan da: etxeak beti zaharberritu izan dira, beti izan dituzte aldaketak, baina zergatik orain horren bortitzak? Erantzuna: material berrien erabilerarengatik

askotako etxeetan izaniko aldaketak. Azken tanta izan zen Julio Caro Barojaren *La Casa Navarra* liburuaren argitalpena. «Berak izugarritzko dokumentazio pila erabili zuen, baina hasi nintzen adibidetzat jartzen zituen etxeak bisitatzen eta konturatu nintzen gehienak aldatuak edo desagertuak zirela. Bere lanean bazegoen arrangura xume bat, esaten zuelako ondare hori galtzeko trantzean zegoela, baina hori arrangura xumea besterik ez zen. Erabaki nuen arazoari aurre egin behar zitzaioela, eta erakutsi behar zela zer ari zen hondatzen, zenbat eta nola».

Material berrien erabilera eskerga • Berehala erabaki zuen kanpoko itxuraz egin behar zuela lana, hori zelako edozein bisitarik ikus zezakeena, eta, baita ere, bestela alimalako lana izan zitekeelako pertsona bakar baten zat. Oinarria hauxe izan zen: etxeak beti izan dira zaharberrituak, beti izan dituzte aldaketak, baina, zergatik orain horren bortitzak? Erantzuna: material berrien erabilerarengatik, batez ere. Joan den mendeko azken hamarkadara arte etenik gabe garatu zen Euskal Herriko jatorrizko arkitektura. Mendetako tradizio honi esker gelditu dira zenbait estilo —Nafarroan lau: mendialdekoa, Pirinioetako, erdialdekoa eta Erriberakoa—, inguruan zeuden materialak erabili izan dituztenak beti. Joan den mendearen bukaeran hasi ziren, hala ere, material berriak sartzen, batez ere kristala, burdi-

na, zinka, adreilua, keramizko teila eta, guztien gainetik, porlana. Etengabe nagusitu zen joera hau izugarri azkartu da 1960tik aurrera.

Lanari aurre egiteko metodoa behar zen, garbi zuelako Morrak ezin zuela edozein etxe aukeratu, are gutxiago denak. Behar zuen sailkapen bat, eta horretarako aukeratu zuen Nafarroako Diputazioak, 1966tik 1982ra bitarte, bultzatu eta lagundu zuen herrietako eta hiri-

inguruetako edertze lehiaketa. 18 urte haletan 9.000 proiektu aurkeztu ziren eta 2.000 saritu zituzten. Horien artean 199renak aldaketaren aurreko eta geroko argazkiekin azaldu ziren argitaratuta. «Konturatu nintzen», azaldu du irakasleak, «horrek balio zezakeela nire lanerako, Nafarroa osokoak zeudelako, gizarteak berak aukeratuak zituelako etxeak, eta administrazioak berak, bere adituek, onetsiak eta sarituak zirelako». Lagin baliagarria, beraz.

Banan-banan 169 etxe aztertu eta portzentaiak atera • 199 etxe horietatik 30 baztertu ondoren, saritu eta gero aldatuak zirelako, banan-banan bisitatu eta aztertu zituen gainontzeko guztiak. Lehendabizi aztertu nahi zuen nolakoa zen sarietara aurkeztu

Dena aztertu du Morrak lan honetan, zorutik teilaturaino, eta ez du ezer bazterrean utzi. Lan hau ez da inoiz egin, aztertu duelako baita denborak utzitako marka ere



baino lehen, hau da, aldatu baino lehen, zer aldaketa izan zituen bitarte horretan, eta, bide batez, erakutsi behar zuen inguruan ere beste etxeek antzeko aldaketak izan zituztela. Amaitzeko, ehunekoak atera. «Niretzat», dio Morrak, «sofrikarioa izan zen hasieran, baina pasio batekin urteak eta urteak pairatzen bazu, azkenean sentsibilitatea galdu egiten da. Nik ezagutu ditut herri hauek, ikusi dut nola desagertu diren, eta jendearen-

tzat edergarri edo apaingarri dena, hau da, modernoa dena, niretako suntsipena da».

Dena aztertu du lan honetan, zorutik teilaturaino, aitzinaldeko ikusgarrietatik hasita azken zuloraino; bankuak, atek, leihoak, balkoiak, harria lotzen zuen mortairua, pinturak hartutako tonuak... ez du ezer bazterrean utzi. Lan hau ez da inoiz egin, aztertu duelako baita denborak utzitako marka ere. Jendearentzat kanpoaldea edertzea eta txuritzea dena, berarentzat da kolorea izorraztea. Kritikatzen ditu horrenbeste ugaltu diren terrazak —«elementu mediterraneo»—, teilatu berri eta zuzen-zuzenak, —«ai kurba zoragarri horiek, urteen pisua erakusten zutenak!»—, baina garbi dauka hori dela jendea gustatzen zaiona.

«Zaharra dena, jendearentzat, itsusia eta zikina da. Gainera, badago halako obsesio bat etxea betiko izan dadin, eta ez zaie uzten gauzei beren amaiera izaten; heriotza naturalaren, zimurraren, arrailaren duintasuna ez da onartzen», dio Xabier Morrak.

«Erromaniko garaiko edozein eraikin», dio bere lanetako pasarte batek, «harribitxi bat da gaur egun, eta garai honek utziko duena ere horrelakoa izango da laster, oso gutxi geldituko delako: etxe monumentalak, jau-regiak... Atzerazina da joera». Ez ditu errudunak bilatzen, ez ditu soluzioak ematen, ez du salaketarik egiten: «Ni iritsi naiz Pompeiara erupzioaren biharumean, eta akta egin dut». X



Tximinia tronkokoikoak ugari ziren Nafarroa osoan —ezkerreko hau Gaskuen zegoen— baina gehienak desagertu dira, Mendazan ikus daitekeen eskubikoaren gisakoek ordezkaturik.

XABIER MORRAS

Xanti Begiristain

800 milioi pezetako soldata

■ 1997. urtea hasi berri-berria baino ez denean, ez nago oso ongi informatuta, eta egia esan ez dakit oraindik Miguel Indurainek sinatu ote duen kontratua ONCE taldearekin, edota aldiz aurten erretiratuko ote den. Dena den, kontu horren inguruan entzuten diren diru kopuruak niretzat nahiko eskandalagarriak dira. Nik entzun dudaz kanonizazioa eskaintzen zizkiola 400 milioi pezeta urteko, eta Miguel Indurainek berriz 800 nahi zituela.


Inolako zalantzarik gabe behintzat, Induraini aitortu behar zaio izan duela trebetasuna kazetari gehienak jakinminez edukitzeko eta azkenik zer egingo zuen jakiteko irrikitan.

Beste alde batetik, nahiz eta ni ez naizen batere txirrindularitza zalea, esan behar dut, nire iritzia apaletan behin behin, Miguel Indurain jo beharko dugula txirrindulari on, serio eta apartatzat, orain arte, inongo zalantzarik izan gabe. Pertsona bezala ere, nik uste dut aski garbi dagoela, ikusirik kritikari guztiak bat datozela esatean Indurain gizon apal eta zintzoa dela, eta, jakina, ni hemen ez naiz hasiko aurkakorik esaten, batez ere argudiorik izan gabe.

Dena den, ni gehien harrizten nauena zera da, alegia, ikustea gizartea berdin-berdin gelditzen dela, hau da, soldata horien aurrean inor ez da eskandalizatzen eta ez du inork protestarik egiten.

Jakina, ni ezin hasiko naiz esaten, kasu honetan, esate baterako Indurainek zenbat diru kobratu behar duen urtean zehar eta zenbat ez, baina bai guztiz argi eta garbi ikusten dudana, eta honela adierazi nahi dut idazki honetan, hau da, horrenbesteko milioitako lan sariak, besterik gabe, eskandalagarriak eta gehiegizkoak iruditzen zaizkidalda. Eta ez, hain zuzen ere, tratatzen ari garen kasuan Miguel Indurain delako protagonista, ez, nik pertsona honen aurka ez dut deus ere alor horretan. Gainera, badakit mundu biribil honetan badaudela beste gizon-emakume asko, makina bat diru kobratzen dutenak, Indurainek kobratzen duena baino askoz gehiago, alegia. Esaterako hainbat aktore, zinema zuzendari, beste kirolari asko, enpresari eta abar ez dira konformatzen horrelako kopuruarekin, eta milaka milioi pezeta kobratzen dituzte. Eta milaka milioi dolar ez baldin badira pozik egon gaitetzke.

Konturatzen baldin bazarete, ni hemen behin eta berriz idazten ari naiz pertsona horiek kobratzen dituztela hainbateko kopuruak; izan ere, niri sinesgaitza gertatzen baitzait esatea eta pentsa-



tzea pertsona batek irabaz dezakeela hainbeste diru lanarekin urte batean legezko modu batez, eta beste hainbat pertsonak, ordea, askoz diru kopuru txikiagoa, eta beharbada lan zailagoak eginez eta lanaldi luzeagoak gauzatuz.

Bai, izan ere, azken batean artikulua honetan argi eta garbi adierazi nahi dudana zera da, horrelako diru kopuru handiak kobratzea lan egiteagatik ez zaidala zilegi iruditzen. Pentsatzen dut legez kanpoko izan beharko lukeela, eta gobernuek, legebiltzarrek, estatuek eta abar debekatu beharko luketela. Egia esan, uste dut ez dela bidezkoa pertsona batek kobratzea urte batean, beste batek bere bizitza osoan kobratuko duena baino askoz ere gehiago. Zergatik? Dohain berezi eta jakin batzuekin jaio direlako? Baina, benetan, pertsona garrantzitsu horiek zer merituz egiten dituzte ba besteek baino mila aldiz gehiago kobratzeko? Eguneke zortzi orduz baino gehiagotan lan egiten ote dute? Edo agian beren bizitza sei seme-alaba dituen beste pertsona arrunt baten baino askoz ere sakrifikuagoa ote da?

Zinez pentsatzen dut berezi horiek ez diela superpertsonak eta gehiegizko kobratzen dutela, alegia, irabazi eta merezi ez dutena. Lapurretatik hurbilago ikusten ditut soldata horiek lansarietatik baino. Jokalmolde horrek dakarren bakarra zera da, banaka batzuk milioidunagoak direla, eta beste asko, gehienak, txiroago eta behartsuagoak. Azken finean, munduko ezberdintasunak handitzea. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Otxoluaren euskal lanak

■ Abizen honekin Tafallakoa zitekeen urtea hasteko hauta dugun gaurko honakoa, baina deus ez urrutia gorik Nafarroako esteperri hura baino. Garro Basterretxea'tar Bernata Mirena Mundakan sortua dugu 1891.eko abuztuaren 22an. Bilbon egin zuen merkataritza, eta 1910.ean Argentinara abiatu zen zazpi urtez. Bertan beste euskalkiekin harremanetan sartzeko aukera ez zuen galdu nahi izan, eta 1917. urtean Bizkai herrira itzuli zenean, zeukan euskara hobetzen ahalegindu zen gorki, hamaika gauza irakurritz, nahiz berebiziko maisua Añibarroren bidez bereziki kausitu zuen nonbait. Halere, idazten hasteko erabakia hartzeraz 1927.ean Evaristo Bustintza Kirikiño zenak antolatu palindromo sariketa batetan parte hartzeak eragin zion, alta egin bat palindromo bidali zuen. Jakina denez, palindromoa zera dugu, ezkerretik zeln eskuinetik hasita, berdin irakur daitekeena, adibide bat ematearren, bihoa honakoa: «an atzo arto zana, senarran esanaz orra otzana». Edozein modutan ere, saria andrazko batek irabazi zuen, bi esaldi baino besterik ez bidaldu arren, izan ere garailea esaldirik luzeena igorriko zuena litzatekeela arautua baitzegoen. Alabaina Garrok aipamen berezia jaso zuen, eta geroztik, astero bidaliko zituen bere idazkiak Euzkadi egunkarira, Lizardik bere Itz-Lauz liburuan aski ongi zioen moduan: «Asteazkeno uts egin gabe arki dezakezute Euzkadi Euzkel atalan Otxoluaren idazki mamia, Mundakako berriez ta zenbait goxoki geiagor ornitua. Maiz berebiziko ipui irakurgarriak ingelertatik txukun askirik itzuli oi ditu. Oiek bilduz noizpait idaztitxo bat osatze' aal ba zenez, elitzake makala aldarte beltza argitzeko: Bizkaiera giartsu egokia oi derabil, ta itz aukeratze ta are asmagintzan ere zolia da. Euskerak Bizkai aldean ditun idazle bikañenetakorik irudi zait». Ez da ttipi Zarautzarrak erauntsi lore, baina ez bide zen gezurretan ari. Bere lan gehienak aldizkako argitarapenetan ageri ziren beti, Euzkadi nahiz Euzkera izparringietan batik bat, hala ere, baten bat aparteko lan soil bezala ere ageri zen geroago. Gure bizkaitar langilea Euskaltzaina ere izan genuen. Bilbon itzali zitzaigun 1960.eko irailaren 14an.

Eman dezagun jarraian, azaletik eta xume izan bada ere, bere idazkirik nagusienen berri apala. Bikar Doniane'ra 1929.eko Euzkeraan agertu zen, baita aparteko argitalpen bezala ber urtean, izenburu berdinez, Bilboko Erremitteria'tar S.'ren irarkolan eta Pizkundiaren argitalpenen artean. Goikoetxea'tar Joseba Koldobika Goiko zenaren marrazkiez horniturik, Donibane Gaztelugatxekoa du ardatz eta lema naski: «Zorjonekuak antxiñako euzkeldunak! ¡Eurak baxen sendo ta erriotsu sartu dagigun guk be geure bihotzetan jaungoikua'ganako ta Doniane'ganako zihñsmena!». Voronoffek be ezin dauna urte berean esan aldizkarian elki ipuintxo dugu: «Kosanton eta Kosepiñazi, larogeña urtetik gorako senar-emaztiak, Jaun-Goikuak alan gura ixanik, tja irurogei urte zirauren alkarregaz bixi ixaten, mattetsu ta ezititsu, batezbe azkeneko urtietan, ain neketsu azirik seme-alabak baxotxa bere ogipidian edo ezkondu ta bixitza onetako neke ta lorrai aurre emoteko gauza ziralda ikusirik».

Sormeneko lanaz gainera, bestelako gaiak jorragai nahiz itzulpenak burutu zituen Otxoluak. 1929.eko Euzkeraan ere Ortuzar'tar Errobusten jauparria artikulua dugu, Robustiano Ortuzar Legarreta (Bermeo, 1883 — Sukarrieta, 1929) antzerkigileari buruzko ohar nekrologikoa. Honek arrantzele bermeotarren ekandua ta jazoerak antzerki eraz idatzi ta azaldu zituen bere Oroigarriak liburuan (Bermeo, 1925): Torronteruen, Donianeko bezperako Balentziaren pozak, Ondo pentsaten zautz, Pitxar bat ur, Txalupetsien edota Bermeoko hiztegi eta esaera bilduma: «Oroigarrietako antzerkijaren landa bai ebazan idatzi beste antzerki batzuk be, oraindiño argitaldu barik dagozanak. Ondarretan ixan zan urtietan be ezeutsan uts egin uarketarako zaletasun unek, eta Algortako ekandua batzuk gai dirala, idatzi zituzan erdi euzkeraz erdi erderaz eginiko antzerki batzuk. Azkenengo urtietan Bermeoko edesti berezi bat idazten iharduban, eta amatu barik itxi dau lan au». Nai dogunez artikulua, 1930.eko Euzkera- azaldu zena, Jel-Aldek, hau da, Sabino Aranak, 1913.ean Euzkadi egunerokoan argitaratu agiria dugu, neurri batean aldatuxea: «nai ta naiez esakun batzuk eta itz bat edo beste aldatu biar ixan doguz, eta aldatetok egitekotan gipuzkeratik bizkajeraldutia oti yaku». Hatsarrien esaketa genuke hau, euskara eta literatura'ren gainean: «Egunoro zerbait egin. Irakurri, ikasi, idatzi, Uarpenaz irakurri ta al dagixuben lez idatzi. Ez bildurtegiak ixan. Beti asitekotan, gerorako isten daunak ezertxu be eztagi. Ta guri, egotia barik, egitia dagokigu. Egiñez, ez egonez, aberastuko dogu euzkera». ■

Jostailuentzako ospitalea Iruñean

Maese Gepetto Jostailuentzako Zainketa Berezien Unitatean konpondu eta berriro banatzen dituzte

Gizakiok bezala, jostailuek ere badute euren zauriak sendatzeko lekurik, Iruñean behintzat. Maese Gepetto Jostailuentzako Zainketa Berezien Unitatea orain bi urte sortu zen Eslava kaleko 11.ean. Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteko kideen ekimenez, jostailu zaharrak bildu eta konpontzen dituzte bertan, gero auzoko neska-mutilen artean banatu ahal izateko.

Edurne Elizondo / Iruñea

JOSTAILUA bazara eta gaixorik bazaude, Iruñean baduzu nora joan, Eslava kaleko 11. zenbakian dagoen Maese Gepetto Jostailuentzako Zainketa Berezien Unitatera, alegia. Bertan, Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteko kideak aurkituko dituzu, zure arazo guztiak konpondu eta jabe eta etxe berri bat emateko prest.

Maese Gepetto jostailu eta jokoentzako tailerra orain dela bi urte sortu zen. Orain dela hiru, lehen aldiz jarri zuen Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteko jostailuak biltzeko kanpaina abian. Jendearen erantzuna hagitza ona izan zen eta elkartearen egoitza txiki gelditu zen hainbeste jostailurentzat. Horregatik, ekimen honen inguruan bildutakoek jostailuak bildu eta konpondu ahal izateko egoitza propioa lortzea pentsatu zuten. Pentsatu eta egin, gainera. Honela sortu zen Maese Gepettoren tailerra.

Sebas Adot da bertan lan egiten duten Alde Zaharreko auzokideetako bat. Jostailuak biltzeko Gabonetako kanpainak bete-bete harrapatuta Eslava kaleko egoitzan aurkitu genuen, urte zaharra amaitu aurretik, gaur banatuko dituzten jostailuei azken ukituak ematen. Urteko garai honetan ia arratsaldero lauzpabost lagun biltzen badira lan egiteko, Sebas Adot bakarrik aurkitu dugu lokala lepo betetzen duten jostailuen artean. Denetarik dago, autoak, kamioiak, panpinak, jokoak, liburuak, pelutxeak, motorrak, tren elektrikoak... Horiek konpontzea da Sebas Adot eta gainontzeko kideen zeregina, gero auzoko neska-mutilen artean banatu ahal izateko.

Auzoko haurrentzako jostailuak

Alde Zaharreko Auzokideen Elkartearen egoitzan eta Maese Gepetton bertan, milaka jostailu biltzen dituzte urtero Gabonetako kanpainan. «Azaroaren erdialdean hasten ohi gara lanean. Deialdia egin eta jostailuak jaso ondoren, horiek konpontzen hasten gara, gero berriro banatu ahal izateko», azaldu digu Sebas Adotek. Aipatu duenez, baina, gehienak nahiko egoera onean ailegatzen dira eta konpontzea txikiak baino ez dituzte behar. Badira, dena den,



Arratsalde asko ematen ditu jostailuekin Sebas Adotek Maese Gepetto tallerrean.
JOXE LACALLE

zakarrontzira bota beharrekoak ere.

Jostailuak biltzeko kanpaina Gabonetan baino egiten ez badute ere, Maese Gepettoren tailerra urte osoan zehar dago zabalik. «30 bat lagun gaude zeregin honetan eta ahal dugunean etortzen gara. Lagunei deitu eta arratsaldeetan biltzen gara gure egoitzan».

Jostailu guztien artean gerra jostailuak zokoratzen dituzte Maese Gepetto tallerreko kideek. Auzoan banatzeko diren beste guztiak, berriz, paper gorriarekin estali eta adinaren arabera sailkatu eta banatzen dituzte. Banaketa, normalean, Auzokideen Elkarteko auzoko haurrentzat prestatutako bestetan egiten dute, iaz bezala adibidez. Jokoak prestatu, txokolata jan eta, azkenik, Olentzero bera agertu zen auzokideek txukundutako opariak banatzera. «Haurren erantzuna ezin hobea da. Pozik joaten dira etxera opari berriekin». Izan ere, etxean oparirik jasotzeko aukera ez duten haurrak dira Maese Gepetton konponduta-

«Jostailu sobera dute egungo haurrek»

ALDE ZAHARREKO Auzokideen Elkartearen egoitzan ez dago jostailu gehiagorentzat lekurik. Eslava kaleko Maese Gepetto tallerrean ere gainezka daude. Ehundaka, milaka jostailu bildu dituzte aurtur berri honetan auzoko neska-mutilen artean banatzeko, oparirik gabe inor ez geratzeko. Sebas Adotekin mintzatzeko ari ginen bitartean, hain zuzen, Inaki hurbildu da Eslava kaleko 11. zenbakira. Txikienez hainbat jostailu ekarri ditu, kontent gainera.

«Telebistan ikusi nuen hemen jostailuak biltzen zitezela eta etxekoei komentatu nien. Denok bagenuen zer edo zer emateko eta horregatik nago hemen», azaldu digu. Inakik, gainera, iruindar guztiak egin die gauza bera egiteko gonbita. «Halakoetan kontu-

ratzen zara gaur egungo haurrek zenbat jostailu dituzten, sobera. Gero denak pilatu egiten dira eta kasurik ere ez diete egiten. Hona ekarrita, behintzat, norbaitek aprobetxatu egiten ditu».

Sebas Adotek ere bat egiten du Inakiren iritziarekin. «Ikarragarria da zenbat gauza erosten ditugun, eta askotan ezertarako ez. Ireki ere egin ez dituzten jokoak eta jostailuak ailegatzen zaizkigu guri ere. Haurrek jostailu asko dituzte, baina gehienak ez dira batere irudimenezkoak, eta segituan aspertzeko dira». Maese Gepettoren tailerra, irtenbide polita da etxeko apalategietan pilatzen diren eta erabiltzen ez diren jostailuei beste aukera bat emateko. Alde Zaharreko neska-mutilak eta baita urrunago daudenek ere bihotzez eskertuko dituzte, ziur.

koak jasotzen dituzten gehienak. «Dena den, etortzen diren haur guztiak ematen diegu oparia», aipatu du Sebas Adotek. Aurtur, Navarriako Kultur Zentroan gaur egiten duten beste aprobetxatuko dute Maese Gepetto tallerreko kideek euren jostailuak banatzeko.

Auzoko haurren artean ehun edo berrehun bat opari banatzen dituzte, eta gainontzekoak gobernuz kanpoko erakundeen bidez Kuba eta beste hainbat herriara bidaltzen dituzte. Iaz, hain zuzen, SODEPaz elkarteko saharar herriaren alde antolatutako karabanan bidali zituzten bertara milaka jostailu. Aurtur ere gauza bera egiteko prest dira auzokideak. Hori dela eta, halako bidaiarik egiteko asmoa duen gobernuz kanpoko edozein erakunderi deia zabaldu nahi izan dio Sebas Adotek. Maese Gepetto tallerreko jostailuak ez ezik, San Fermin peñak biltzen dituenak ere emateko aukera izanen dute, Adotek azpimarratu duenez, ez baitira zeregin honetan ibiltzen diren bakarrak. X

◆ Alejandro Arbea Polite ◆ Musikaria

«Erreferentzia garrantzitsua da Paris»

Gaur eta bihar Musikari Gazteen Kontzertuak izanen dira Nafarroako hainbat herritan. Nafarroako Gobernuak antolatu ditu, eta, bertan, Europako hainbat hiritan ikasten duten musikari nafar gazte eta bekadunek hartzen dute parte. Alejandro Arbea Polite da horietako bat.

Julen Arriola / Boulogne-Billancourt

Hogeita sei urteko gazte honek flauta ikasten du Parisen. Gaur Lizarran joko du eta bihar, berriz, Iruñean. Nafarroara itzuli aurretik, berarekin mintzatu gara musikari eta bere esperientziari buruz Boulogne-Billancourt-eko bere etxean.

■ **Parisen zaude gaur egun.**

Orain dela bost urte allegatu nintzen musika ikastera. Lehenengo, bekarik ez nuenez, Paris eta Iruñea artean bidaiatzen eman nuen. Pablo Sarasate Kontserbatorioan irakasle nintzen, eta Parisera noiznahi etortzen nintzen. Bigarren urtean horrela jarraitzerik ez nuela konturatu nintzen eta Kontserbatorioko lana uztea erabaki nuen, ikasten jarraitu ahal izateko. Orain dela hiru urte Nafarroako Gobernuaren beka daukat. Ikasturte hau azkena izanen da eta Iruñera itzuliko naiz, ea lanik aurkitzen dudan. Motza iruditu zait hemen eman dudan denbora.

■ **Nazioartean, Nazioarteko Musika Kontserbatorioa erreferentzia nagusia bada ere, bada kalitateko beste eskolarik ere. Non zaude zu?**

Aurten Creteilgo Musika Eskola Nazionalan nago, Maurice Trufot-ekin. Aurretik Ivryko Musika Eskola Nazionalan egon nintzen, Gil Brugos-ekin. Hor jarraitzen dut, baina musika pedagogia ikasten dut bertan.

■ **Musikari berri guztientzat na-**



Alejandro Arbea, Boulogne-Billancourt herriko bere etxean, flauta jotzen.

JULEN ARRIOLA

■ **hitaezkoa dirudi Paristik igarotzea. Hala da?**

Ez derrigorrez. Hainbat leku daude aukeran. Nik Paris aukeratu nuen, flauta ikasteko kalitate handiko eskola dagoelako hemen. Haize musika tresna guztientzat erreferentzia Paris da. Baita Lausana (Suitza) eta Holanda ere.

■ **Hainbat urtez Parisera Euskal Herriko ikasle asko joaten delako galdetu dizut.**

Egia da. Nahikoa bagaude. Nire ustez, hona etortzen gara, alde batetik, kalitate handia dagoelako eta, bestetik, ez dagoelako oso urrun. Gainera, hiri handi batean aurki daitezkeen musika ekitaldi guztiak aurki ditzakezu hemen.

■ **Derrigorrezko erbestea dirudi musika ikasle guztientzat hainbat urtez etxetik kanpo egotea.**

Maila ona lortu nahi baduzu derrigorrezkoa da. Euskal Herrian, ikasketak amaituz gero, erraza da nabarmentzea. Baina guztien prozesua kanpora ateratzea da beti. Maila gainditzeko eman beharreko urratsa da.

■ **Lan gehiago ere egin beharko duzue.**

Aldaketa handia da. Hasieran oso zaila da, hamar urtez egin dituzun gauzak zuzendu behar dituzulako. Oso irakasle zorrotzak dira. Nire aurtengo irakaslea, adibidez, pikolo bakarlarria da Parisko Orkestran. Karrera luze jendea da. Merkatuak ere asko exijitzen ditu. Eskaera handia da, eta, horregatik, ezin dituzte nabarmentzen ez diren ikasleak eduki.

■ **Zein etorkizuna du musika ikasle batek Euskal Herrian?**

Galdera ona! Bi irtenbide baino ez daukazu, orkestra batean jo edo irakaskuntzan aritu. Irakaskuntzari dagokionez, kontserbatorioak, musika eskolak, akademia eta abar dira dauden aukerak. Orkestra batean egoteko aukera gutxi dago Euskal He-

rrian. Gogorragoa da. Euskadiko Orkestran sartzeko lehiaketan, adibidez, denek har dezakete parte, eta atzerritar asko aurkezten da. Eta, noski, hoberenak hartzen dituzte. Espainiako Orkestra Nazionalak, adibidez, atzerritarrentzat muga bat ezartzen du. Frantziar ere frantziar guztien artean onena izan behar duzu. Zalantzarik izanez gero, frantziarra hartuko dute beti lehenago atzerritarra baino. Oro har, etorkizuna nahiko beltza da.

■ **Lan finko bat utzi izana ez zaitu inoiz damutu?**

Berriozarko eskolan ere egin nuen lan. Beraz, jarraitzeko aukera nuen, baina ez dut damu, orduan nuena baino maila hobea lortu nahi bainuen.

■ **Orain dela bost urte allegatu zinen Montparnasseko geltokira. Hiri handi bat eta ez zenuen inor ezagutzen...**

Hasiera gogorra da. Hizkuntza da lehenengo muga. Frantsesez apur bat hitz egiten nuen, baina ez nuen menperatzen. Bakardadea ere gogorra da. Zaila da lagunak egitea. Bost urte egon on-

s o s l a i a

Hogeita sei urte ditu Alejandro Arbea iruindarrak, eta 15 daramatza musikaren munduan. Hamar urte zituela proposatu zioten gurasoek solfeo ikastea,

«etxean beti abesten artzen bainintzen». Flauta bere amak tresna txikia nahi zuelako aukeratu zuen. Gaur egun, flautina eta flauta barrokoa ere jotzen ditu.

Egunero bost ordu jotzen du flauta, entseatzeko. Hala ere, «ez dut uste inoiz perfektu jotzen dudala erranen dudarik, musika etengabe ikasten baita, ez da inoiz amaitzen». Zorionez, bere auzokideak pozik dira berarekin, «giro berezia ematen baitot etxeari».

Kontzertu ugari eskaini baiditu ere, musikari askoren ametsa ere bete du, hau da, metroan jotzea. «Bitan egin genuen, jakinmina asetzeko batez ere». Flauta jotzen zuen bitartean, gainera, lortu zuen hainbat txanpon biltzea, «baina ez gehiegi, egia erran».

doren, orain ongi nago hemen.

■ **Nafarroan ba al dago zuei aholku emateko nolabaiteko erakunderik?**

Oro har, zeure kabuz bilatu behar duzu informazio guztia. Hemen egondako beste batzuei galdetu nien nik. Nire irakaslearekin egondako lagun bat ere banuen eta berak lagundu zidan. Ikasturtea hasi aurretik etorri nintzen, uztailean, klaseak nola ematen zituen ikustera. Lausanan ere egon nintzen beste irakasle batekin, baina Suitzako kontserbatorioan ez zegoen lekurik.

■ **Hemen zaudeten ikasle euskaldunen artean harreman ona al duzue?**

Giro ona dago gure artean. Iruñeko lau gaude hemen, nik dakidala. Euskal Herriko hogei bat ezagutzen ditut. Euskal Etxean egon nintzen urtean, adibidez, ikasturte bakoitzeko bertan dauden hamasei ikasleren artean, lau musikari ginen. Baina gehiago izanen direla pentsatzen dut. Elkar ikusten saiatzen gara, esperientziak trukatzene...

EUSKAL HERRITIK KANPO

«Musikariontzat derrigorrezkoa da kanpora ateratzea, maila ona lortu nahi izanez gero behintzat»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI ERDA



URTEGIA APURTO - PANI ASKATU